

Agur esateko modu bat gehiago

Ez zait erraza izan zuri agur esateko modua topatzea, Joxe. Zorroagan irakasle, Jakinen bidaide... Hari-mutur asko, nola erabaki zeini heldu. Baina zenbaki honetako testuek zure ibilbide eta pentsamenduari buruzko begirada poliedrikoa bermatzen dutela ikusi dudanean, hauxe pentsatu dut: 25 urteotan Jakinen argitaratzeko prestatu dizkizudan idazlanak berrirakurtzea, inspirazio bila. Luza gabe, betidanik oso go-goan izan ditudan bi harribitxi hautatu ditut. Bere garaian, guztiz txundituta utzi ninduten; orain, berrirakurtzean, txunditu ez ezik, erdi-erdi-tik hunkitu naute. Eta, bide batez, agurtzeko modua ere iradoki didate.

Zure idazlan ezagunenak ez izanagatik, zure pentsamendu eta pentsaeraren ispilu eta paradigma argiak dira: beste inori ezagutu ez diodan erudizioaren ospakizun dira, baina, garrantzitsuagoa dena: erudizio hori maisuki erabili duzu guretzat (banako gisa, herri gisa) funtsezkoak diren auziei erroetatik heltzeko.

Lehen harribitxia 1999an *Sokratesen Defentsa*-ren itzulpenari egin zenion 73 orrialdeko hitzaurre monumental da. «Filosofiaren historiako –eta agian literatura guztiaren historiako– testurik hunkigarrienetakoa da». Sokrates krisialdiko pentsalaritzat ezaugarritzen duzu hitzaurrearen izenburuan bertan. Guri, izan ere, «gizarte greko tradizionala barru-barruan jotzen duen krisia erakusten eta berdenboran eragiten duten natur filosofoak eta sofistak interesatzen zaizkigu oroz gain».

Eta Sokratesen pentsamenduaren iparrorratz, *areté*-a/bertutea, bizitzari (eta heriotzari) zentzua ematen diona:

Zorionaren ardura ongiaren ardura da; ongiaren ardura, arimarena. Arimaren ardura da gizakiaren ardurarik behinena. Arimaren bertute propioa gogoeta eta *sophía* da, zientzia. Arimaz arduratzea jakintzaz arduratzea da, hortaz; eta, *vice versa*, jakintzaz arduratzea, arimaz arduratzea da, arima hobetzea, lantzea. Horra bizitzaren helburua, existentziaren zentzua.

Bigarrenean, hiru kanposantutara egindako «pelegrizazio» bat kontatzen duzu 'Poesia eta filosofia: hilobiz hilobi' testu deliziosoan (*Filosofia eta poesia*, 2011): Port Boun datza Walter Benjamin, Colliouren Antonio Machado, eta Sèten Paul Valéry:

[H]irurek xx. mendeko autoreengan egon den kezka poetiko-filosofiko-politikoaren eskalak bezala eskaintzen dituztelako Mediterraneoaren magalean. Bi Mundu Gerrak, Espainiako gerra zibila, mendebaleko espirituaren larria, etorkizun berri baten esperantza komunistak, faxismo eta nazismoen gora: gogoetagai politak.

Kontakizunaren azken lerroetan, Valéryren *Le cimetière marin* poema liburuak bizitzaren, heriotzaren, ezerezaren eta kontzientziaren arteko borroka eternala iradokitzen ditu:

Munduan dena ezerezera dihoa. Itsasgaineko hilerriak eguerdiko galdan munduaren iragankorra irakasten du, dena isurian dagoenaren ez(in) ezer izate paradoxala, mugimendu eta zalaparta guztiaren geldiegon betikoa, denboragabetasuna. [...] Bat-batean, kontzientziak berriro denborara eta gorputzera itzuli gura du [...] Itsasoa legez, kontzientzia ere beti berrasten den legez, bizitza beti berrasten da; historia beti berrasten ari da belaunaldi bakoitzarekin, interpretazio bakoitzarekin.

Sokrates, Valéry...: hari-mutur horiei tiraka, bizitzaren eta heriotzaren zentzu atzemanezinari kosk egiteko saio eternalen bidaide izan zenuen Gustav Mahlerrek lagunduko nau agurrean. 1908an, antzinako txinatar olerkari batzuen poemetatik abiatuta, sei kantaz osatutako *Lurraren kanta* (*Das Lied von der Erde*) zikloa konposatu zuen Mahlerrek. Lehen bostetan, gaztetasuna eta naturaren edertasuna, bizitza eta heriotza ospatzen dira. Seigarrena, *Agurra* (*Das Abschied*), gizakiaren amaikortasunaren onarpenari, transzendentziari eta bizitzaren birsorkuntzari buruzko gogoeta hunkigarria da: agurtzen ari zaiguna baretasunezko azken unera iristen ari da, amaitzen den bizitzaren eta behin eta berriro birsortzen den lurraren arteko lotura berrituz. Musikak isiltasuna besarkatzen amaitzen du pixkanaka, *Ewig... Ewig...*, betiko... betiko...:

Nire bihotz bakartiarentzako atsedean bila nabil.
Nire aberrira noa, nire lekura!
Ez naiz gehiago urrun ibiliko.
Bare dut bihotza, bere orduaren zain!
Lur maitea nonahi loratzen da
udaberrian eta berdatzen da berriz!
Nonahi eta betiko urdin
distiratzen du urruntasunak!
Betiko... betiko...